

GALDETEGIA

2020ko azaroaren 27a baino lehen jasotzen diren iritzia hartuko dira kontutan. www.zaldibia.eus atarian GALDETEGI DIGITALA eskuragarri duzu. Esku artean duzun GALDETEGI HAU BETE eta Karreane kultur etxeko kutxan sartu behar duzu.

Etxe bakoitzera galdetegi bakarra bidali badugu ere, kultur etxean bertan aurkituko dituzu ghiago, herritar bakoitzak bat betetzea nahi genuke.

PROZESUAREN INGURUAN....borobildu erantzuna.

HAUTAKETA PROZESUAREKIN ADOS ZAUDE?

Parte hartzaileak, metodologia, epeak, ...

BAI

EZ

Hautaketa prozesuari buruzko EKARPENIK BADUZU HEMEN IDATZI:

AUKERAN DAUDEN IRUDIEN INGURUAN....borobildu erantzuna.

AURKEZTU DIREN IRUDI GUZTIEK ZALDIBIAKO UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA IZATEKO FUNTZIOAK BETETZEN DITUZTELA USTE DUZU?

BAI

EZ

Erantzuna EZ bada, HAUETAKO ZEINEK EZ DU BALIO? Borobildu nork.

1

2

3

4

GUTXIENEZ IRUDI BATEK ASEBETETZEN ZAITU?

BAI

EZ

Irudiei buruzko EKARPENIK BADUZU HEMEN IDATZI:



**Zaldibiako Udalaren
IRUDI BERRIA
hautatzera goaz**

ZERGATIK?

Zaldibiak Udal Eraikin berria izango du aurki eta berritasun horri bultzada bat emateko, "Zaldibia" izenaren benetako esanahitik eta herritarrengandik gertuago egongo den irudi berri bat lantzeko une egokian gaudela uste dugulako. Egungo egoeran badakigu ez dela herritarren kezka nagusia, baina arriskuan inor jarri gabe eta prozesua osasun neurriekin uztartuz, egingarria dela uste dugulako.

ZERTARAKO?

Irudi hau Udalaren ikur berria izango da, Udala herrian eta munduan agertzeko. Hainbat euskarritan erabiliko da: orrietan, gutun-azaletan, udal-autoan, langilegoaren arropetan, karpa eta kortxoetan... Baita Udal Eraikin berriaren fatxadetan ere. Irudia berritzearekin batera egungoak izenaren jatorriaz sortzen duen nahasmena ere saihestu nahi da.

NOLA?

Irudi berria izango denaren hautaketa herritarren partaidetza bidez egingo du Udalak, ezin du bestela izan.

1. Osoko Bilkurak eman dio hasiera prozesuari eta emaitza errespetatzeko konpromisoa hartu du.

2. Jarraipen mahaia osatu da, prozesuaren gidari eta bermea izango dena, eta herritarrengandik jasotakoa kudeatuko duena.

3. HERRITARREN 1.go TXANDA: etxeetara banatu eta sare sozialetatik zabalduko den informazioa jaso eta GALDETEGI HAU betetzea. Paper hau beteta Kultur Etxean jarriko den kutxan sartu beharko da.

4. Galdetegiko iritzia baloratu ondoren hautaketa aldia deituko du mahaiak. Hori izango da HERRITARREN 2. TXANDA: abenduaren 14tik 20ra, Karreane Kultur Etxean egingo den HAUTAKETA-ALDIA. Zaldibian erroldatuta daudenek izango dute bozka emateko aukera.

5. Bozkatuena izan den irudia Osoko Bilkurara emango du jarraipen mahaiak udalbatzak berretsi dezan.

PARTE HARTZERA ANIMATZEN ZAITUZTEGU!



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)
www.zaldibia.eus



**ORAIN
GIPUZKOA**